

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

QWERTY

ILION, NEW YORK, 1874. Remington & Sons armagile ezagunek lehen idazmakina merkaturatu zuten. Tramankulu berritzaileari “Sholes & Glidden Type Writer” izena ipini zioten. Christopher Latham Sholes Milwaukeeko editore, politikoa eta filosofoak ordu asko ematen zituen Kleinsteuber’s makina denda, kezka bertsuak zituen lagun koadrilarekin batera. Bizimodua erraztuko zuten makina iraultzaileak asmatzea zen haien denbora-pasa. Sholesen asmoa orrialdeen zenbakia automatikoki ipiniko zuten makina egitea zen. Baina Kleinsteuber’s-eko lagun batek, behin hasita alfabeto guztia idatziko zuten makina egiten saiatzeak merezi zuela esan zion. Lagun hura agian Carlos Glidden izango zen. Handik aurrera behintzat laguntza handia eskaini zion Sholesi.

Eta Sholesek, ordainetan-edo, lehen idazmakinari Glidden jarri zion izena.

Baina makinak ez zuen egileek esperotako iraultzarik ekarri. Bost urtetan 5.000 idazmakina baino ez zituzten saldu; huskeria, Remington enpresako beste produktuen salmentekin alderatuta.

Logikoenak makinan letrak ordena alfabetikoa jartzea zirudien. Baina asmakizunak arazo

txiki batzuk zituen. Batetik erdiko teklek presio gutxiago behar zuten, eta erditik urrundu ahala zailagoa zen teklek funtzionatzea. Horregatik Sholesek bere ustez ingelesez gehien erabiltzen ziren hizkiak erdi partean kokatu zituen. Bestetik, teklatuan elkarren alboan zeuden bi letra bata

bestearen atzetik sakatuz gero, trabatzeko arrisku handia zegoen. Horregatik, letren konbinazio ohikoenak teklatuan bereizita ipintzea erabaki zuen egileak. Bi faktore horiek kontuan hartuta sortu zuen sistemari QWERTY esango zioten gerora; goiko ilarako ezkerreko aldetik hasita, teklatuaren lehen sei letrak dira.

Remingtondarrek beste aukera bat eman zioten idazmakinari, eta 1878an “Remington No. 2” modeloa ekoizten hasi ziren. Bigarrean bai, Sholes eta lagunak ametsa bete zen. Urte gutxitan

industria oparoa garatu zen idazmakinak egiteko, eta mundu osoan bulego lan mantsoa mekanizatzeko hasi zen.

1936an, hasierako mekanika arazoak konponduta, August Dvorak-ek teklatu erosoago eta praktikagoa patentatu zuen; gehien erabiltzen ziren letrak erdiko ilaran kokatu zituen. Baina beranduegi zen milioika eta milioika hatzen ohi-turak aldatzeko. ■



1874ko lehen idazmakinan ez zituzten letrak ordena alfabetikoa ipini.

Egungo teklatuak lehen makina horren ordena berean dituzte hizkiak.

ARRASTOAK



TREVISO hiri italiarraren ondare historikoa desitxuratzeko arriskua dagoela argudiatuz, bertako udalak erabaki polemikoa hartu du: jatatxe txinatarrek sarreran izan ohi dituzten argi gorriak kentzeko agindua eman du, eta bestelako apaingarriak debekatzeko aukera aztertzen ari dira.

Sile ibaiak zeharkatzen duen hiriko kaleek kutsu historiko nabarmena dute. Baina bertako hainbat karguk egindako adierazpenak gehiegizkoak dirudite. Argi gorriek Trevisori

“Ekialdeko kutsu handiegia” ematen diotela esan du Sergio Marton zinegotziak; Giancarlo Gentilini diputatuari, berriz, “Treviso ez da Ekialdeko hiri bat” gogoraraztea beharrezkoa iruditua zaio. Biak Lega Nord alderdikoak dira, Trevisoko udala bezalaxe. Alderdi honen etorkinen aurkako muturreko jarrera kontuan hartuta, eta duela aste gutxi Milanen polizia eta komunitate txinatarren arteko liskarrak ikusita, ondare historikoarena aitzaki hutsa dela dirudi.